

## BEZEROEN SEGMENTOA

Gure zerbitzua honako bezero hauei zuzenduta dago:

- Batez ere, egun-pasa dibertigarria eta bizigarria egin nahi duten turistentzat edo bezeroentzat zuzenduta dago gure idea. Horretaz gain, Euskal Herriko kostaldeko kulturari buruz interesa duten pertsonei dago zuzenduta, edo orokorrean kultura desberdinak ezagutzea gustuko dutenei.



-Gaur egun, jende askok denbora asko edo gehiegi ematen du haien egunerokotasunean edo lanean. Horregatik, denbora oso gutxi daukate haien familiakoekin aisialdian jarduteko. Beraz, gure ideia perfektua da egunerokotasunetik atsedenaldi "express" polit eta erabateko bat hartu nahi duten familientzako.



- Gure helburua adin ezberdinetako jendea erakartzea da. Beraz, adin-txikiko jendearentzat bereziki gomendagarria da irteera hau. Oso esperientzia pedagogikoa da: haurrek eta nerabeek naturarekin/ itsasoarekin 1. pertsonako abenturazko bidaia izango dute eta erakutsiko diogun itsas kulturarekin kontaktuan jarriko dira.

Dibertigarria ere bada: Adibidez, umeek trikitilarien musika gozatzeko aukera izango dute, eta gero hondartzan bainatuko dira.

Umeen segurtasuna guztiz bermatuta daukagu: Esate baterako, nahiz eta 2-3 ordu eman arrantzako itsasontzi batean eta itsaso zabalean; oso arrisku gutxi dauka, gure itsasontziak baranda handiak baititu istripuak saihesteko. Horretaz gain, haurrak kainaberekin arrantzan ibiltzen badira ere, umeentzako kainabera kopuru mugatu bat dago eta kainabera bakoitzeko tripulazioko kide bat dago zaintzaile gisa.

- Proiektua ere arrantza-herrientzako biztanleentzako ere moldatuta dago. Itsasoan arrantzaile gisa lan egin dutenen semeentzako edo familientzako oso egokia da gure enpresaren ideia. Haien gurasoen edo aitona-amonen lana nolakoa zen era dibertigarrian ikusteko baliagarria da egun-pasa hau. Gainera, mundu horretan lanean ibili diren gure bezero nagusienak, era batean, euren antzinako laneko egoerak gogorarazteko eta berpizteko egokia izan daiteke egun pasa hau.



-Gure negozio-ideia publiko guztientzat zuzenduta dago. Gure bezeroen jatorria ez da oztopo bat transmititu nahi dugun kulturaren arakatzeko. Gurekin lan egiten duten gidariak eta langileak edozein egoeratako prest daude, hau da, lau hizkuntza ulertzeko eta hitz egiteko gai dira, eta beste edozein pertsonekin komunikatzeko ere gaitasun handia dut